


1 Idatzi, dagokion laukian, atmosferako geruza bakoitzaren izena.



2 Zer fenomeno atmosferikori buruz ari gara?

- a) Aire-korronteak dira. Korrontearen indarraren arabera, brisa, haizetea edo urakana izan daiteke:
- b) Atmosferan eratzen diren ur likidozko tanta txikiak dira. Flotatu egiten dute eta haizeak alde batetik bestera bultzatzen ditu:
- c) Hodeietan gordeta dagoen ura erortzeari esaten zaio. Ur hori euri, elur edo txingor moduan eror liteke:

3 Irakurri esaldia, eta zuzendu, okerra bada.

Klima esaten zaio atmosferak une eta toki zehatz batean duen egoerari.

4 Azaldu zer den altitudea eta zer eragina daukan kliman

5 Azaldu zer den latitudea eta zer eragina daukan Kliman

6 Adierazi, gezien bidez, tresna meteorologiko hauek zertarako balio duten.

- | | |
|-----------------|-----------------------------------|
| Termometroa • | • Prezipitazioak neurtzeko |
| Plubiometroa • | • Haizearen abiadura neurtzeko |
| Anemometroa • | • Temperatura neurtzeko |
| Higrometroa • | • Hezetasuna neurtzeko |
| Haize-orratza • | • Presio atmosferikoa neurtzeko |
| Barometroa • | • Haizearen norabidea adierazteko |

7. Erreparatu Munduko mapari eta idatz itzazu munduko zona klimatikoak.

